

[View this email in your browser](#)



Ongi etorri BECoop buletinaren bigarren zenbakira!

Bioenergiak aukera handiak eskaintzen ditu, batez ere eremu termikoan, baina gaur egun ez dago oso garatuta Europan. Buletinean jaso ditugun azken hilabeteotako azterketetan ikusten denez, eskualdetik eskualdera aldatu egiten da bioerregaien gaineko ezagutza eta horien onarpen maila. Alabaina, nahiko gutxi baliatzen da oraindik, oro har, beste energia-iturri berriztagarri batzuekin alderatuta, eguzki-energiarekin edo energia eolikoarekin esaterako.

[Agiri](#) honetan bildu dira gure bazkide eta laguntzaileekin batera egindako [inkestaren](#) emaitzak (hiru alderdi hauek aztertzen ditu inkestak: Europako herritarren lehentasunak, beren onarpen-mailak, eta komunitate bioenergetikoren bateko kide bihurtu nahia). Emaitza horiek era honetako proiektuen garapena errazten eta oztopatzen duten faktore nagusiak hobeto ulertzen lagun diezagukete, bai eta jendeagan bioenergia komunitarioarekiko kontzientzia sortu eta interesa areagotzearen aldeko komunikazioa hobetzen ere. Esaterako, bideo labur bat prestatzen ari gara otsailerako, lehenago ["lantalde topaketetan"](#)egin zen [aurkezpena](#) osatzeko asmoz; bien bitartean, BECoopi buruzko informazioa irakurri edo konpartitu dezakezu [hemen](#) (gaztelaniaz).

Buletin honetan BECoop-eko bazkideek proiektuaren lehen urtean egindako lan guztia irakurri daiteke; lan hori da, hain zuzen ere, bigarren fasea garatzeko (ekimen pilotuena), oinarria. BECoop-ek 4 ekimen pilotu abiaraziko ditu laster Europako 4 herrialdetan, Grezian, Espainian, Italian eta Polonian. Horietan, bioenergia sustatzeko lankidetzak berriak sustatuko dituzte proiektuko erakunde bazkideek; azken 6 hilabeteetan gure eskualdean zeregin horretan hasiak garelarik, besteak beste [tokian tokiko kontsulta-lantegiak](#) eta proiektuaren aurkezpen [birtual](#) zein [aurrez aurrekoak](#) antolatuz, bai eta [komunikabideetara zuzenduriko komunikazioak](#) eta bilerak komunitate, udalerrri eta beste

alde interesdun batzuekin. Lehenengo pausu batzuk ere emanda hasiak dira, horrela Greziako ESEK elkartearen proposamena irakurri ahalko duzue, beren pellet-ekoizpenari kafe-pelleta (kafe- eta egur-hondakinekin egina) eranstea planteatzen duena. Baita gure kasuko beste ekimen bat, tokiko berokuntza-eskaria hornitzeko nekazaritza- eta baso-baliabideen erabilpenaren bideragarritasuna aztertzen duena.

Ezaugarri desberdinak dituzte aukeratutako eskualde pilotuek, bai eta heldutasun-maila desberdina ere, komunitate energia-proiektuei dagokienez; horrenbestez, Europa osoko sintesi ederra eskaintzen dute. BECoopek erakutsi nahi du kasu guztiek dutela lekua bioenergiako Energia Komunitate berriztagarriak eraikitze bidean, gure tresnak lagun; tresna horietako lehena eskuragarri dago dagoeneko, eta gainerakoak laster egongo dira. Ekimen horien emaitzak energia-komunitateek beren mix energetikoan bioenergia erantsi dezaketela erakusteko erabiliko dira, betiere proba eta praktika egokietan oinarrituta. Buletina atsegin handiz irakurriko duzuelakoan, konpartitu ezazue gure lana nahi duzuenekin.

Hurrengo ekitaldi batzuetan zuekin bat egitea espero dugu, bai eta gure lana beste inorentzat erreferentzia gisa baliagarria izatea ere. Proiektutik jorratzen diren gaiak biltzen dituen edozein kasu partekatu nahi izan ezkerro jarri harremanetan.

MILESKER!



ALBISTEAK PIL-PILEAN

Gure lehen txostenak

Kontuan hartu behar da jarraian bildutako albisteak Europako Batzordeak oniritziaren zain daudela. Proiektuaren lehen urtean bideratutako jardueretan oinarritzen dira, eta horien emaitzak laburbiltzen dituzte.

Bioenergia komunitarioaren egoera

Europar Batasun (EB) osoko eta eskualdez eskualdeko testuingurua, eta bioenergia komunitarioaren onarpenari eragiten dioten baldintzak

[Txosten honetan informazioa biltzen da, batetik, energiaren arloko jardunbide egokiei buruz; bestetik, horretarako dauden tresnei buruz; eta, azkenik, bioenergiaren eta berokuntza berriztagarriaren eremuetan energia komunitarioaren kontzeptua aplikatzerakoan arrakasta eragin dezaketen funtsezko faktoreei buruz, Europar Batasun osoan.](#)

Txostenak jardunbide egokien 70 kasutik gora hartzen ditu oinarri batetik eta gauzatu ditugun ekimen hauen ondorioak bestetik:


- Merkatu-azterketa, bioenergia-merkatuaren hazteko ahalmena ikertzeko asmoz.
- Elkarriketak energia-komunitateen kasu arrakastatsuen ordezkariak, haien motibazioak eta erronkak aztertzeke.

"It is very encouraging that bioenergy community projects can be successfully implemented, despite the difficulties that may arise during their development"

Europar Batasun (EB) osoko eta eskualdez eskualdeko testuingurua, eta bioenergia komunitarioaren onarpenari eragiten dioten baldintzak

BECoopeko eremu pilotuetako (Espainia, Grezia, Polonia eta Italia) eskualde- eta nazio-testuinguruak zein EB mailako aztertzen ditu txostenak, eta bioenergia bidezko berokuntza komunitarioko proiektuak onartzeko oztopo eta akuiluak ikertzen ditu, betiere teknologiarik buruzko ikerlan dokumentala eta hainbat elkarriketa oinarri hartuta.

[Artikulu](#) labur batean biltzen dira [txostenaren](#) ondorio nagusiak (toki mailan identifikatu diren oztopo eta akuilu nabarmenenak).



Bioenergia bidezko berokuntza komunitarioaren onarpenaren behar eta erronken definizioa

[BECoopek bioenergia-proiektuen erronkak eta beharrak identifikatzen ditu proiektu maila pilotuan nahiz EBn](#), horretarako gure proiektuaren jardueretako (tokiko kontsulta-prozesu bat) ekarpenak aintzat hartuta, eta BECoopen aurretiazko azterlanen emaitzetan oinarrituta. Besteak beste berokuntzaren sektorean bioenergia komunitarioa ezartzeko eskualde-erronkak definitzen dira, esaterako, bai eta eskualde pilotu bakoitzaren beharrak ere, betiere partaideen profiletan oinarrituta. Azkenik, Goienerrrek osatutako emaitza-agiri honek hobetzeko aukerak eskaintzen dituzten sektore edo arloen aurretiazko definizio bat hartzen du baitan, horiek izango baitira proiektuak finkatzeko pilotuen oinarri.



Interes taldeen pertzepzioak, onarpen-maila eta beharrak, bioenergia bidezko berokuntza komunitarioko proiektuen inguruan

Sarreran aipatu den bezala, proiektuaren lehen urtean 100 partaidetik gora bildu zituen lau lantegi egin ziren, baita tokiko lau inkesta ere (400 erantzun jaso ziren), eta EB mailako inkesta (5.000 inkestatutik gora), eta jarduera horietan [jardunbide egokiak, gizarte-pertzepzioak eta bioenergiari zein energia-komunitateei buruzko sentsibilizazio-maila islatu zen](#), bai eta bioenergia-komunitateetan parte hartzea ahalbidetzen edo oztopatzen duten faktoreen gaineko ulermena ere.

Ikerketaren emaitzen arabera, EBko herritarrak tokiko eta eskualdeko iturri berriztagarriko energia-proiektuek ekar diezazkieketen onura ugarien jakitun dira, oso jakitun, baina ez dirudi oraindik energia-komunitatearen kontzeptuarekin ohituta daudenik. BECoopen xedeen artean horixe aldatzea dago, hain zuzen ere!



TRESNA-KUTXA: eskuragarri dago lehen BECoop tresna

Lineako tresna-gordailu honi esker, leku bakar batean biltzen dira energia-komunitateentzako eta bioenergiaren sektoreentzako kode irekiko tresna baliagarriak. Liburutegiak proiektuen jabeek horiek errazago identifikatzeko, horietan nabigatzeko, eta beren beharretara ondoen egokitzen direnak identifikatzeko aukera ematen die. Bioenergia- eta berokuntza-proiektu komunitarioen garatzaileei eta operadoreei laguntzen die, 4 tresna-kategoria eta oraindik argitaratzeko dagoen autoebaluazio-tresnarako esteka zuzen bat eskainiz.

<https://becoop.fcirce.es/toolkit/>


Ezagutzen duzun tresnaren bat edo zerbait falta dela sumatzen duzu? Zalantzarik bildu diren tresnen zerrenda topatzeko? Mesedez jar zaitez gurekin harremanetan, horren berri emateko.

Proiektu pilotuen berri: Ekonomia zirkularrerantz, kafe-, landare- eta basogintza-hondakinen bidez!

Zenbait jardunaldi antolatu ziren proiektu pilotuen herrialdeetan, BECoopen kontzeptua eta helburuak aurkezteko eta alderdi interesdunen iritzia jasotzeko. Euskadin ekimen bat antolatu zen Gasteizko administrazio-batzarretako batean, BECoop kontzeptua garatzeko asmoz, eta interes handiz bizi izan zuten udal ordezkariak zein herritarrek.

Polonian, OBS erakundeak bilera bat antolatu zuen tokiko komunitatearen energia-ahalmenaren garapenari buruz, hartara berokuntza-sistemetan biomasaren (energia berriztagarria) erabilera handitzeko

Garatzeko ahalmen handiko BECoop komunitate bat sortu zen Grezian, udal-hondakin berdeetatik (hiriko zuhaitz-mozketen bidez bilduak), betiere udal-ordezkariekin adostuta, zurez eta kafez egindako bioerregai solidoen ekoizpenetik sortutako pelletak. [Horri buruzko artikulua bat dago eskuragarri proiektuaren webgunean.](#)



BECoop albiste

Artikulu bat White Research partaidea idatzitakoa: Bioenergiako BECoop ekimen komunitarioa fase pilotura igaro da (ingelesez)

BECoopeko koordinazio-lana egiten duen White Researchek proiektuaren lehen urteaz eta datozen hilabeteetako idatzi du: bioenergia komunitarioa Europan aplikatzeko aukeren azterlana batetik, Grezian, Italian, Polonian eta Espainian lau proiektu pilotu abiaraztea bestetik, non bazkideek lankidetzaren berriak sustatuko dituzten bioenergia erabiltzearen alde. [Gehiago irakurtzeko](#)


Elkarrizketa Vanessa Gallo-ri (italieraz)

"Biomasa berebiziko garrantzia du trantsizio ekologikoan... 2050erako instalatutako potentzia bikoiztea aurreikusten da". Italiako kasu pilotuko partaidea den FIPEReko idazkari nagusi Vanessa Gallok biomasa trantsizio ekologikoan duen garrantziaz dihardu. [Bionergyeurope, perchè la biomassa per la transizione ecologica \(canaleenergia .com\)](#)

BECoop @ Sustainable Places

Bestalde, joan den urrian BECoop parte hartu zuen Italian egindako Sustainable Places ekitaldian (online ere egin zen), non berariaz energia-komunitateei buruzko saioak egin baitziren: teknologiak, alderdi sozialak eta negozio-ereduak. Ekitaldiaren grabazioa, bertako txostena eta ondorio nagusiak dagoeneko eskuragarri dauden honetan, artikulu labur batean bildu dugu hori guztia. Mahai ganean negozio-eredu desberdinak jarri zirelarik, horrek ikuspegi, ideia eta pertzepzio aniztasuna konpartitzeko aukera eman zien H2020 BECOOPek, SocialRES, WHY, Drimpac, Newcomers eta Compile partaideei. [Gehiago irakurtzeko](#)

Ezagutu ezazu gure aholku batzordea



BECoop Aholku Batzordea eratu dugu, gure ideia eta emaitzen gainean atzeraelikadura esanguratsu bat bermatzeko asmoz, bai eta ideia eta emaitza horiek gure erabiltzaileen eta alde interesdunen beharrekin lerrokatzeko. 8 kidek osatzen dute, hainbat arlotan nabarmenduak (esaterako komunitate bioenergetikoak, energia komunitarioa, energia-federazioak eta mundu akademikoa), eta proiektuaren aholku- eta balioeste-organo gisa jardungo dute. Emaitza-agiriak osatzeko beren aholkuen laguntza espero dugu, BECoop proiektuak emaitza onak eman ditzan. [Ezagutu itzazu](#)

Datorrena

Tresnak



Laster – BECoop ebaluazio-tresna

Ezagutu ezazu BECoop autoebaluazio-tresna, bioenergiaren proiektu kooperatibo/komunitario baten egungo egoera ebaluatzeko asmoz erabiltzaile ez-espezializatuentzat eta eskarmenturik gabekoentzat diseinaturik. Tresnak gomendioen bidez lagunduko die erabiltzaileei, hauek lehenik eskura

dituzten baliabideei, beren ekimena hobekien irudikatzen duen jarduerari eta abarri buruzko galdera-sorta bat erantzun ondoren. Armiarma-sare itxurako kalifikazioa batean islatzen dira azken emaitzak Tresnaren zain zauden bitartean, txosten batean [hura erabiltzeko jarraibideak kontsulta ditzakezu](#), bai eta erabiltzaileek eskuratu dezaketen informazio-mota, eta informazio horren baliogarritasuna bioenergia bidezko berokuntza komunitarioko proiektuak arrakastaz ezartzerakoan. Adibide bat ere badu tresnak (nekazaritzako biomasaz elikatutako hiri-berokuntzako unitate baten instalazioaren eta funtzionamenduaren ebaluazioa), horren bidez erabiltzaileei informazio mota eta tresnak nolako emaitzak ematen dituen ulertzen laguntzeko.

Adi izan, adi, hemendik oso gutxira gure sare sozialean produktua kaleratzearen berri emango dugu eta!


Laster – Merkatu elektronikoaren ingurunea

Harremanetan jartzen ditu biomasadun berokuntza-instalazioen hornidura-kateko partaideak, eta lagundu egiten die bioenergia komunitarioko proiektuak garatzen.

Merkatu elektronikoaren ingurune hori hezkuntza- eta informazio-bektore sendo gisa

jardungo du, bioenergia bidezko RESCoopen (iturri berriztagarri bidezko energia-kooperatibei) erakusteko, batetik, alde interesdunen artean sortu beharreko elkarreraginak, eta bestetik, tokiko hornidura-kate eraginkor eta jasangarria zein bioenergia-proiektu komunitario bat ezartzeko bultzatu beharreko jarduerak/zerbitzuak.

Dagoeneko 60 erabiltzaile erregistratu dira, zatoz zu ere! Bioenergiaren hornidura-katean interesa baduzu (zarela biomasa-jabe, energia-zerbitzuen enpresa edo instalatzaile, azken erabiltzaile, inbertitzaile, ikerketa-zentro edo besterik...), eta tresna eskuratzea nahi baduzu, jar zaitez [gurekin harremanetan](#) edo bete ezazu [formulario](#) hau.



Ezagutzak trukatzeko plataforma (2022ko martxoa)

[Ezagutzak trukatzeko plataforma](#) leihatila bakarra izatea nahi da, eta eskualde eta sektoreen artean informazioa eta ezagutzak partekatzeko lankidetzak-oztopoak ezabatuko dituen gunea izatea espero da.

- 2022. urte hasieran argitaratuko dira BECoopen arlo enpresa- eta finantza-katalogoak, bai eta katalogo teknikoak ere. Lan horren ardura duten bazkideak bisitak egiten ari dira; Espainiako biomasako hiri-berokuntzako instalazio batekin hasi dira. Fitxa teknikoak eskuragarri egongo dira tresnan berean.
 - Gaikuntza-ekitaldiak egingo dira zenbait gairen inguruan, esaterako bioenergiaren, RESCoopen eta pobrezia energetikoaren alorretan, ikuspegi tekniko, politiko zein enpresariotik abiatuta. Laster informazio gehiago.
-

Non da gure arreta...? Proiektu senideak

Proiektua duela urtebete baino gehiago hasi zenetik, helburuetako bat antzeko ekimen eta proiektuekin konprometitzea zen, hartara besteen ezagutzak eta baliabideak aprobetxatzeko. Horrenbestez, orain arte 13 proiektuk osatutako talde bat sortu da ("proiektu senide" deituta); hilean behin biltzen dira talde horretako proiektu kideak, emaitzak konpartitzeko eta aurrerago gauzatu daitezkeen lankidetzak jorratzeko.


Azken hilabeteetan proiektu berriak batu zaizkie taldeari, besteak beste RAMAS, EC², UP-ESCALERAS izenekoak.

<https://www.becoop-projects/>

2021-ko maiatzean sorturiko EC² (hauxe esan nahi du izenak: Energiaren Herritarak eta Energia-Komunitateak, Energia Garbiaren aldeko Trantsizio Bidean) karbono-emisio baxuko gizarte baterako trantsizioan enegiekin konprometitutako herritarren papera ikertzen duen proiektua da, zuzenbidearen, ekonomiaren eta psikologiaren ikuspegietatik.

Hemen da EC² buletinaren lehen zenbakia! Bertan, EC²-ren bazkideak ezagutu ditzakezu, bai eta ikerlanei eta laster egingo diren ekimenei buruzko informazioa jaso ere. [Irakurtzeko.](#)

BECoop partners





This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under Grant Agreement no. 952930.
The responsibility for the information and the views set out in this document lies entirely with the authors. The European Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains.

Copyright © 2022 BECoop, All rights reserved.

You are receiving this email because you opted in via our website.